

KONTROL MOZIOA

Hizkuntza erabilera dela eta

Itziar Iturri Arrazolak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hizkuntza erabilera dela eta. Mozioa 2024ko irailaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

1991ko Euskararen Ordenantzak zehazten du, 25. artikuluan, Udalaren dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetako bat izango dela hizkuntzaren irizpidea. Kultur, kirol eta aisia elkarteek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, dirulaguntzak eskuratzeko, diruz lagundutako beren jardueretan euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz egin eta zabaldu beharko dituztela argitalpenak eta ahozko mezu eta adierazpenak. Era berean, ospakizun konkretuetan bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituztela. Adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna.

Bestalde, eta artikulua berberak dio udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko direla; hau da, udal instalazio eta materialak erabiltzeko baimena ematerakoan, Udalak hizkuntza baldintza horren berri emango diela interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenatariko bat izango dela hizkuntzari buruzkoa ere.

Era berean, ferietako, zirkuetako, kioskoetako zein lurzoru publikoan jartzen den edozein instalaziotako idazki, iragarki eta kartelak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta beraz, instalatzeko baimena emateko baldintzen artean hori ere azalduko da eta horrela jakinaraziko zaie jabeei, fidantza itzuli aurretik baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

Donosti Cup, uztailako lehen astean, urtero gure hirian egiten den Oinarrizko Futboleko Nazioarteko Txapelketa da. Futbol-klubetako, futbol-eskoletako, teknifikazio-akademietako eta eskola-ligetan parte hartzen duten ikastetxeetako taldeei zuzenduta dago.

Txapelketa erakunde pribatu batek antolatzen duen arren, Udalaren (eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren) dirulaguntza jasotzen du eta, besteak beste, Donostiako udal instalazioak erabiltzen dira txapelketarako.

Aurtengo Irekiera Ekitaldian izan ginen eta deigarria izan zen euskararen erabilera eskasa. Ekitaldia ia osorik gaztelaniaz izan zen, ingelesa eta frantsesa dezente erabili ziren, baina euskararen arrastorik ez zen ia izan.

Gurasoek eta zenbait eragilek adierazi digutenez, sari banaketan gauza bera gertatu zen; euskararen presentziaren arrastorik ez, nahiz eta sarituetako talde batzuk euskal taldeak izan.

Ekimen horretan atzerriko haur askok parte hartzen dute, baina bertoko haur askok ere bai. Txapelketaren inguruan, gainera, hemengo jokalarien familia ugari ibiltzen da.

▶ Ijentea, 1 www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean gai hau landu genuenean, Iñaki Gabarain Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotziak Donosti Cup-ek hizkuntza erabilerari buruz helarazi zizkion datuak jakinarazi zizkigun. Datu horien arabera txapelketan zehar, ekitaldi batzuetan bete zituzten hizkuntza eskaerak, baina beste batzuetan ez, ordea.

Kasu hau adibide bat baino ez da Donostiako udal instalazioetan zein lurzoru publikoan urte osoan zehar antolatzen diren ekitaldi ugarien artean.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari euskararen inguruko udal ordenantza bete dadila Donosti Cupen eta, oro har, udal dirulaguntzak jasotzen dituzten edo/eta lurzoru publikoa erabiltzen duten edozein ekimenetan, eta horretarako beharrezkoak diren bitartekoak jar ditzala ordenantzaren betetze maila egiaztatzeko.

Donostian, 2024ko irailaren 19an

Itziar Iturri Arrazola

EH Bilduko zinegotzia